

AEKren eta Korrikaren alde, igande honetan

"Bultza Euskaltegiak! Bultza euskara!" izenburupean, Andoainen eta Urnietan ekitaldi bana iragarri dute igande honetarako. / 2-3

ORDU ALDAKETA

Udako ordutegia estreinatuko dugu martxoaren 28an: goizeko ordu bitan, hirurak izango dira.



Brontzezko domina irabazi du Mikel Campos urnietarrak, Espainiako atletismo txapelketan / 13

"Dortsala jantzi nahi nuen, eta hori gertu ikusita, herrian zerbait egitea pentsatu dut"

Jokin Lizeaga korrikalaria osatu da, eta herrikideen artean erakustaldia egin nahi du / 10-11



euskara bada errenta

**ERRENTA
AITORPENA
EUSKARAZ**

APIRILAREN
12TIK AURRERA
AUTOLIKIDAZIOA
ONARTZERAKOAN,
SAKATU EUSKARAREN
AUKERA



Informazio gehiago:
www.andoaindarraeuskaraz.eus
www.urnieta.eus





2015eko martxoaren 19tik 29ra herritarrek EUSKAHALDUNDU zituen KORRIKAK. Buruhandien eta Erraldioen konpartsako kideek eraman zuten lekukoak, besteak beste. AIURRI

Alba Cabrera Jauregi ESKUALDEA

Lau hamarkada baino gehiago igaro dira zenbait zoro zoragarrik hizkuntza baten alde inoiz egon den ekitaldi jendetsuena egiteari ekin ziotenetik. “Zuk ere esan bai euskarari”, zioen KORRIKAre lehen leloak, eta, harrezkero, bi urterik behin, hamaika herritarrek eutsi diote AEKren erronkari. Zazpi probintziak zeharkatu ohi ditu bi mila kilometroko ibilbideak, eta eskutik eskura egiten du salto lekukoak, harik eta helmugara iritsi arte. Hitzordu berezia da herritar askorentzat eta euskaltzale alferrena ere lasterka ipintzen du KORRIKAK.

Alabaina, mundua hankaz gora utzi du iragan urtean hasitako pandemiak, baita egunerokoa goitik behera baldintzatu ere birusari aurre egiteko neurri murriztaileek. Ondorioz, orain hilabete batzuk, hitzordua urtebetez atzeratuko duela iragarri zuen AEK-k: “Une honetan, ez dugu KORRIKAre ordezko eskas bat nahi. Izan ere, euskarak bezala, KORRIKAK kalea behar du, bizia, mugimendua. Eta hori errepidera ateratzen direnek ematen digute, kalera ateratzen direnek”. Tristura handia eragin zuen albisteak,

Eskutik eskura iraun dezan lekukoak

“Bultza euskaltegiak! Bultza euskara!” egitasmoa jarri du martxan AEK-k. Datorren igandean, kalera aterako dira andoaindarrak zein urnietarrak, euskalduntze-mugimenduaren garrantzia plazaratzeko

batez ere, ekimenaren atzean buru-belarri lanean diharduten kideen artean. Nerea Zubimendi irakasle da Urnietako AEKn: “Herritarrok irrikaz itxaroten dugun hitzordua da KORRIKA, eta, aurrean, hutsunea nabaritu da, euskaltegiei ematen dien bultzadari dagokionez”. Bide beretik, Joxemi Aranburuk Andoingo AEKn egiten du lan: “KORRIKAK eragin zuzena du

euskaltegiengan, AEKren jardunaren oinarri ekonomikoa da, besteak beste”.

Horiek horrela, AEKren eskutik, ekitaldi-sorta izango da hilaren 28an –KORRIKAK amaitu behar zuen egunean–, euskalduntze-mugimenduaren garrantzia plazaratzeko asmoz: “Bultza euskaltegiak! Bultza euskara!”. Ekitaldi xumeak izango direla jakinarazi du Zu-

bimendik, baina gaineratu du “65 txokotan baino gehiagotan” aterako direla herritarrek kalera. Hala, goizeko 11:00etan izango da hitzordua Andoainen, Goikoplazan, hain justu; aldiz, Urnietan, eguerdiko 12:00etan hurreratuko dira herritarrek Etxeberrri Plazara. Martxoaren azken igandeko hitzorduaz gain, beste hainbat helburu ditu egitasmoak: hiru ardatzek osatzen

dute aurtengo dinamikaren bizkarrezurra.

Administrazioari begira

Orain 55 urte, Rikardo Arregi andoaindarrak Euskaltzaindari gutun bat bidali zion; euskaldunak alfabetatzeko bultzadaren premiaz mintzo zen bertan. Hala, gutun hura jo ohi da 60. hamarkadako helduen-alfabetatzearen aldeko mugimenduaren aitzindari. Beraz, hari horri tiraka, “2021eko apirilko gutuna” helaraziko die AEK-k, aurki, Euskal Herriko administrazio nagusiei, datozen urteetan euskalduntze-mugimenduak nolako baldintzak izan behar dituen jakinarazteko asmoz.

Oraindik, “lan handia” egiteko dagoela uste du Nerea Zubimendik, izan ere Euskal Herriko herritarren % 55 erdalduna da: “Horregatik egin dugu euskaltegiak babesteko deia; laguntzea ez da soilik ekarpen ekonomikoa egitea, zure herriko euskaltegiaren gaineko interesa azaltzea ere bada, horri ikusgarritasuna ematea, alegia”.

Hori ez ezik, mota guztietako eragileekiko lan-ildo bateratua ere jorratzen ari da AEK: “Harreman horiek sustatzen segitu nahi dugu”, jakinarazi du erakundeak, “eragileek aurrerapauso gehiago emateko, akuilulana ere egin dezaten beren eremuan; gobernuek eta herritarrek jokatzeko duten rolaz gain, eragileek ere paper garrantzitsua dutelako”.

Balioa eman

Azken KORRIKAn, Hernanialdeko antolatzaile lanetan aritu zen Zubimendi eta ondo baino hobeto oroitzen ditu egitasmoa antolatzeko izan beharreko koordinazioa nahiz antolaketa. “Zaila bezain ederra” da irakaslearentzat, hots, haren esanetan, lan handia egin behar izan arren, zoragarria da prestaketa: “Izugarria da zure herritik pasatzen denean. Oso polita da sentitzea zure aletxoak jarri duzula bertan, eta gau eta egun aritu zarela lanean, KORRIKA gelditu ez dadin”. Bat dator harekin Joxemi Aranburu Andoingo AEK-k kidea: “Ekitaldi jendetsua da, partehartze handikoa. Gainera, edizioz edizio handitu egin da ekimena”. Horren harira, gehitu du ez duela gustuko jendeak KORRIKA jai kutsuarekin, soilik, lotzea, alegia, haren iritziz, “era kon-

tzientean” parte hartu behar da hitzorduan. Aldi berean, KORRIKAK “euskalduna izatearen harrotasuna” ematen duelakoan dago Zubimendi: “Ondo sentiarazten gaitu, giro berezia sortzen baita, eta ikasle askori hori dela-eta sortzen zaie euskara ikasteko grina”. Horregatik guztia-gatik, bi kideek argi dute martxoaren 28an kalera irteteko beharra.

Bestalde, euskarak bizi duen egoera linguistikoaren erradiografia egiten du KORRIKArek ibilbideak. Zubimendik dioenez, “oso agerikoa” da hori kilometro-banaketan, esaterako: “Hemen, handia da eskaria, baina beste hainbat lekutan, zenbait kilometroz aritzen dira korrika, ez baitago lekukoa eramateko nahikoa jenderik”. Horregatik, jende andanak erosi ohi du kilometroa KORRIKAK bultzada txikia duen lekuetan, eta horrek, irakaslearen ustez, “kohesioa ematen dio Euskal Herriari”.

Bulkada, indar hartzeko

Zuloa eragin du KORRIKArek hutsuneak, eta banku bidezko finantzaketaren bitartez eman dio erantzuna AEK-k. Zorpetze horri ere aurre egin beharko dio, ordea, eta herritarren babesa behar duela jakinarazi du erakundeak: “Hurrengo ikasturtean izango den KORRIKAK babes erraldoia jasoko duelakoan gaude, benetan behar dugu-eta”.

Ikuspuntu ekonomikitik erreparatuz gero, diru-iturri oso garrantzitsua da AEKrentzat KORRIKA, izan ere, Zubimendik dio “bi urtez bizirauteko adinako ekarpena” lortzen dutela horren bidez. Ildo beretik, Joemi Aranburuk gaineratu du pandemiak berak zuzenki eragin



2013ko martxoaren 14tik 24ra egin zen 18. KORRIKA. Urnietako Idiazabal kalean gora eramane zuten lekukoa. AIURRI

duela euskaltegien jardunean. Orotara, urtero, 40.000tik gora herritar egon ohi dira euskara ikasteko bidean, Euskal Herrian zein nazioartean; baina, Aranbururen esanetan, aldaketa nabari da matrikula-kopuruan: “Euskaltegietako taldeak ere nabarmen txikiagoak dira aurtengo. Herritar ugari gerturatu da gaurera; hala ere, egoera epidemiologikoa medio, ezin izan dute

**"HERRITARROK
IRRIKAZ ITXAROTEN
DUGUN HITZORDUA DA;
AURTEN, HUTSUNEA
NABARITUKO DA"**

guztiek izena eman. Ikasle-kopurua mugatu egin behar izan dugu”.

Gauzak horrela, diru-bilketa abiatu du AEK-k, Aranbururen esanetan, erakundea sostengatzeko: “Ikuspuntu ekonomikitik erreparatuta, urte txarra izango da; ez dugu KORRIKArekin biltzen dugun diru-kopurua lortuko”. Hala, ekarpena egin nahi duenak AEKren web-

**"EKITALDI JENDETSUA
DA, PARTE-HARTZE
HANDIKOA. EDIZIOZ
EDIZIO HANDITU EGIN
DA EKIMENA"**

gunean izango du diruz laguntzeko aukera. Ezjakintasunak ezjakintasun, itxaropentsu ageri da andoaindarrak, eta jendearen babesa izango dutelakoan dago.

Hogeita biko, hogeita bigarrena
Mendea hastearekin batera, mundu bat euskarara bildu zuen AEK-k, herriak geroa landu zezan; *arr, harri; err, herri; irri, irri...* Orreagatik Bilbora, ondoren, euskal herritarrek euskaldundu zituen KORRIKAK, baita munduko hamaika txokotako euskal diasporakoak ere. Hurrengo edizioan, gogotik heldu zioten hitzari, lekukoari eta elkarlanari; euskarari, herriari.

Hitzordu bana, igandean

Hamaika txokotan barrena, Euskal Herria zeharkatu behar zuen, aurtengo KORRIKAK. Baina ez da posible izango. Hala ere, AEKren eskutik, ekitaldi-sorta izango da, euskalduntze-mugimenduaren garrantzia plazaratzeko asmoz: “Bultzatzen euskaltegiak! Bultzatzen euskara!”. Hala, martxoaren 28an kalera ateratzeko deia zabaldu du AEK-k: goizeko 11:00etan izango da hitzordua Andoainen, Goikoplazan; aldiz, Urnietan, eguerdiko 12:00etan hurreratuko dira herritarrek Etxeberri Plazara.

Karriketan korrikan, korrika karriketan aritu zen euskara orain hamarkada bat, eta pausoz pauso eman zioten euskara elkarri hainbat Euskalakarik. Euskaldundu zituen BatZuk, hizkuntzaren malabarista bihurtu, herriaren ilusionista; eta nork bere erritmora egin zuen Klik-a azken KORRIKAN. Aurtengo, euskaltzaleen bultzada sentitu nahi du AEK-k, “Bultzatzen euskaltegiak! Bultzatzen euskara!”, eta 2022. urtean igaroko da KORRIKA, berriro ere, herriz herri. Bien bitartean, Euskal Herriko errepideetan, irrikaz itxarongo diote herritarrek lekukoari, euskarak, eskuz esku, ahoz aho iraun dezan.

Harpidedun izatearen abantailak

Egin zaitez Aiurriko harpidedun eta Aiurriarekin batera, Ikusbera aldizkaria jasoko duzu

Tel.: 943 300 732

idazkaritza@aiurri.eus

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA





IRITZIA

EGUZKI TALDE EKOLOGISTA ETA ANTINUKLEARRA ANDOAIN

Gipuzkoako Foru Aldundiak segurtasun-eremuetan basurde ehiza baimendu nahi duela ohartarazi du Eguzkik

Eguzkik ohartarazten du Aldundia segurtasun-eremuetan basurde ehiza baimentzeko foru-agindu bat izapidetzen ari dela. Foru-agindu horrek oso modu nabarmenean urardotuko luke segurtasun-eremuen funtzioa. Izan ere, 2011ko Ehiza Legearen arabera, segurtasun-eremuak ezartzen dira “pertsonak eta haien ondasunak babesteko”. Horregatik, beraietan “debekatuta dago armekin ehizatzea”.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, baina, segurtasun-eremuak basurdeentzako babesleku bihurtzeko argudiatuz, beraietan, “salbuespen gisa, ehiza-ekintza zehatzak” baimendu nahi ditu, “pertsonak arriskuan jartzea edo nekazaritzan kalteak saiheste aldera”. Baina oraingoan ere ez du aurkeztu inolako txosten teknikorik, ezta Gipuzkoako Ehiza Kontseiluari ofizialki jakinarazi zaion daturik ere. Ez du zehazten zenbat arazo edo zenbat kalte sortu duten basurdeek, esaterako, Ulian, eta “salbuespena” Gipuzkoako segurtasun-eremu guztietan ezarri nahi du. Halaber, “ehiza-ekintza zehatzak” aipatzen ditu, baina, paradoxa bada ere, inolako “zehaztasunik” gabe; adibidez: Aldundiak Txingudiko Kontserbazio Bereziko Eremuan (KBE) edo Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuan (HBBE) txakurrekin eta eskopetekin aritzea baimenduko al du? Segurtasun-eremuetan arazo bat balego, Aldundiak ezer baino lehen behar bezala dokumentatu beharko luke, eta, ondoren, hala badagokio, esan beharko luke nola erabili behar duen bisturia. Baina izapidetzen ari den foru-agindua motozerra erabiltzea bezalakoa da.

Horregatik, Eguzkik dei egiten die herritarrei eta, bereziki, zuzenean kaltetutako zortzi udalei (Zerain, Astigarraga, Idiazabal, Andoain, Irun, Hondarribia, Donostia eta Pasaia) Aldundiari beraien desadostasuna adieraztera.

Foru-agindu honen atzean dagoen arazoa da Aldundiaren ehiza-politika, basurdeei dagokienez, ez dela fruitu onik ematen ari. Orain dela ez aspaldi, basurdeak inportatu, itxiturretan hazi eta mendietan askatu zituen, “birpopulatzeko”, beti ere aisialdiko ehizaren mesedean. Garbi dago ez zuela asmatu. Orain, berriz, basurdeen gehiegizko populazioa ehiza-uxaldien bidez kontrolatu nahi du. Baina, Aldundiaren beraren datuen arabera, urtero botatzen den basurde kopurua aurreko urtekoa baino handiagoa, eta, hala ere, arazoa gero eta larriagoa da. Hori diote, behintzat. Beraz, badira arrazoiak pentsatzeko ez dela politika zuzena. Badira arrazoiak pentsatzeko basurde uxaldiak, metodo selektiboa ez diren heinean, arazoaren parte direla konponbidearen parte baino gehiago.

Nolanahi ere, segurtasun-eremuen segurtasun-arazoa ez dira inolaz ere basurdeak, ehiza eta eskopetak baizik.

Informazio osagarria segurtasun-eremuei buruz
Gipuzkoako segurtasun-eremuak honako hauek dira: Zerain (hiru), Astigarraga (Santigomendi inguruan), Idiazabal (hiru), Andoain (Goiburu inguruan), Irun eta Hondarribia (Bidasoaren bokalea eta Txingudiko badia), Donostia eta Pasaia.

Oro har, espazio periurbanoak dira, herritarrek egurasteko asko erabiltzen dituztenak. Beraz, eremu hauetan ehiza egitea

arriskutsua da, edo, behintzat, traba da gainerako jarduerak lasai egiteko.

Adibidez, Donostiako eta Pasaiaiko segurtasun-eremua joan den urteko abuztuan deklaratu zen prozesu luze baten ondorioz, batez ere Ehiza Federazioa Uliarekin tematu zelako. Prozesu honetan Legebiltzarrak berak esku hartu behar izan zuen eta, besteak beste, honako hau esan:

“[Ehiza baimenduz gero] gune horietan [Ulian] bat egiten duten beste erabilera batzuekin talka egin daitekeela aurreikusi ahal da; izan ere, bisitariak asko dira mendira joaten direnak, populazio-dentsitate handiko eremuetatik oso hurbil daudelako eta Gipuzkoan garrantzi handiko bidezidor homologatuak daudelako, hala nola GR-121 Talaia, Donejakue Bidea eta Gi 33 Uliako Itzulua. Gainera, ehizan aritzeak eragin nabarmena du eremu hori erabiltzen duten gainerako herritarrentzat, bai tiroek eragindako zarategatik, bai pertsonen segurtasun fisikoko arrazoiengatik”.

Hauex da, funtsean, segurtasun-eremuak deklaratzeko arrazoiak. Arrazoi hori ezerezean geratuko litzateke baldin eta, “salbuespen gisa” besterik ez

bada ere, ehiza larriko uxaldiak antolatuko balira.

Gainera, arestian esan bezala, segurtasun-eremuetan arriskua ez dira basurdeak, ehiza eta eskopetak baizik.

Aldundiaren ehiza-politikari buruz

Hainbat faktoreren ondorioz, gaur egun basurde gehiago daude orain dela urte batzuk baino. Baina faktore horietako bat ez da basurde-ehiza egiten ez dela edo gutxi egiten dela. Izan ere, Aldundiaren beraren datuen arabera, urtetik urtera hazi egiten da botatako basurdeen kopurua, eta, hala ere, arazoa gero eta larriagoa omen da. Paradoxa horrek zer pentsatua eman beharko lioke Aldundiari. Beharbada, ez da ehiza-politika ondo enfokatzeko ari.

Beste lekutan, ehiza-politika basurdeen populazioen dinamikari eta espeziearen etologiari erreparatuta egiten dute, eta, ondorioz, ez dituzte botatzen eme heldu handiak. Eme heldu handi horiek basurde taldeen ugaltze-prozesua kontrolatzen dute. Haiek ehizatzen badituzte, berriz, taldeko gainerako emeak ugaltzen hasten dira, bizirauteko mekanismo gisa, eta basurdeen populazioa handitzen da. Labur esanda: badaude arrazoiak

pentsatzeko zenbat eta basurde gehiago bota modu ez selektiboan, orduan eta basurde gehiago egongo direla. Eta, hain justu, gaur egungo uxaldiak ez dira oso metodo selektiboa, egia esan.

Bestalde, basurdeek oso talde egonkorak osatzen dituzte, eta, babesa eta jana dituzten bitartean, ez dira beraien eremutik gehiegi mugitzen. Uxaldiek ez dute egonkortasunean laguntzen, eta badira arrazoiak pentsatzeko basurdeak hiri-inguruetara eta baserrietako soro eta baratzetara hurbiltzeko faktore bat izan daitezkeela.

Hau da, arestian esan bezala, badira arrazoiak pentsatzeko uxaldiak, gaur egun egiten diren moduan behintzat, arazoaren parte izan daitezkeela konponbidearen parte baino gehiago. Nolanahi ere, eta iritziak iritzi, gaur egungo ehiza-politikak fruiturik ematen ez duela ikusita, badira arrazoiak pentsatzeko horren inguruko hausnarketa egitea komenigarria litzatekeela.

Baina garbi dago hori ez dagoela Aldundiaren buruan, eta Gipuzkoan dauden segurtasun-eremu bakanek ere traba egiten diotela uxaldiekin egiteko.

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Umetan, 32 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus @aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.

Kudeaketa, harpidetza:
Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J. Mari Sagaseta (Umetan).

Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikiak:
diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zerua Multimedia.



ALJATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOINGO UDALA



Umetan

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

Hikuntza Berlitasunerako Zuzendaritza



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak
ezinbestekoak dira.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



IRITZIA

ANDONI URBISTONDO URNIETA

Isiltasunak

20 urte pasa dira. 20 urte testu hau idazteko, barruan gordeta ditudan askatzeko.

Aspalditik daukat arantzatzoa hor nonbait, bihotzean edo ariman. 20 urte dira ETak Froilan Elespe PSE-EEko zinegotzia erail zuela Lasarte-Orian. Larunbata egokitu da aurten, martxoak 20 dituela. Eraiketa hark ekarritako isiltasunak ekarri nahi nituzke gogora. Nirea, garrantzitsuen. Nireak eragindako beste batzuk. Hitzik esan gabe geratzeak ekarri zituzten begirada sakonak.

Atentatuaren egunarekin oroitzen naiz. Egunkarian ari nintzen lanean. Atentatuaren berria iritsi zen. Andoni Elesperen neska laguna izan zenari, Maider Ziaurrizi deitu nion berria emateko, eta 'shock' egoeran geratu ginen biak. Ziur aski bezperan, edo azken asteburuan Andoni eta Josurekin egon ginelako Xauxar tabernan mundua konpontzen. Zulo hartan orduak eta orduak pasatakoa bainaiz, bi elespetarrekin.

Ezagutzen nauenak badaki zein iturrietatik edan dudan nire pentsaera politikoa edukitzeraino. Izan lagun giroagatik, edota familian eta lagunartean gertatutako tortura kasuengatik. Lizarrako etenaren ostean ekintza armatuari berrekin zion ETak, eta ez nintzen ados erabaki harekin. Giro horretan etorri zen Froilan Elesperen atentatua. Eta atentatuarekin, haustura eta urruntzea Elespe anaia biekin. Ulertzekoa, zure aita erail eta egunero kafea hartzen duzun tabernan halako ekintzak ulertu edo hauspotu zitzakeen norbait egoteko arriskua bazegoen, ezta?

Josu eta Andoni desagertu egin ziren. Eta han geratu ginenok ezer gertatu izan ez balitz bezala jarraitu genuen kafea hartzen, egunero. Isilik geratu nintzen ni, eta ziren asko. Nirea bakarrik epaitzea dagokidanez, isiltzeko erabaki

hori urtetan zamatuta izan dudala esan nahi nuke. Elespetarrekin solasaldi bat izateko gogoz, baina solasaldi hori gauzatzeko mugimendurik, keinurik egin gabe. Ez bainekien zein jarrera erakutsiko zuten Andonik eta Josuk nirekiko. Akaso popatik hartzera bidaliko ninduten, eta beldur horren aurrean, begiak itxi eta urteak pasatzen utzi nituen.

Bizitzak gurutzatu gintuen noizbait... bainoa pausoa emateko kuraiarik ez. Bazegoen deabrutxo bat, nire buruan, 'ez hadi joan berarengana, haserretzen bada zer?', esaten zidana. 2013 edo 2014an, EHBilduko zinegotzi nintzela, elkarbizitza ekitaldi bat egin zen Saroben. Han azaldu zen Josu, neska-lagunarekin, eta hurbildu nintzen. Harrera beroa egin zidan, korapiloa askatu nuen, eta barrunbeetan tenkatuta zegoena bota. Eskertu zidan, eta bi minututan 15 urteko jauzia eman genuela esango nuke.

Azken urteetan Andonirekin kafe pare bat hartu ditut, eta pendiente daukagu babarrun jate oparo bat Besabin. Josu Anoetan ikusi izan dut, Realeko partidaren bat ikustera joan naizen apurretan. Kasualitatea, ni eseri izan naizena baino hiruzpalau ilara beherago. Atsedendian zigarro bat erretzera irteten da Josu, eta berarekin egon nintzen hitz eta pitz. Egun hartan Realaren emaitza bigarren maila batean utzi nuela esango nuke (irabazi egin zuela uste dut).

Larunbatean 20 urte bete ziren Froilan Elespe erail zutela. Besarkada mezua bidali nien bi anaiei. Whatsappez, modu pribatuan, eta Twitter sare sozialean ere bai, publikoki. Biek erantzun zuten. Jarraituko dugu hizketan, eta zauriak, baleude, erabat ixten saiatzen. Ahaleginak merezi duelako.

Bultza euskaltegiak!

euskara! *aek*



- Euskaltegi **sendoak** behar ditugu
- Euskal Herriko herritarren **%55 erdaldunak dira.**
- Bide onetik goaz, **urtero-urtero 45.000 lagunetik gora** euskara ikasten ari baitira euskaltegietan, baita pandemiak eragindako ikasturte ezohiko honetan ere. Biba zuek!

Zure bultzada behar dugu!

aek

Martxoak 28, igandea

11:00 ANDOAIN Goikoplaza

12:00 URNIETA Etxeberri plaza

“Prozesua bake epaitegietan hasten da”

ALBERTO AGIRREZABALA LASARTE-ORIAKO BAKE EPAITEGIKO LANGILEA
Buruntzaldeako herrietan ere posible da abizenak euskalduntzea. Prozesuari ekin nahi dioten biztanleek euren bizitokiko bake epaitegietara joan behar dute

Erredakzioa ANDOAIN

Apelliduak abizendu nahi dituzten pertsonak, bizi diren herriko bake epaitegira joan behar dute. Lasarte-Oriakoan, besteak beste, Alberto Agirrezabalak egiten du lan. Hark azaldu ditu abizenak euskaldundu nahi dituztenek jarraitu behar dituzten urratsak. **Lasarte-Orian bizi naiz, 18 urte baino gehiago ditut, eta abizenak euskaldundu nahi ditut. Nora joan behar dut?**

Bake epaitegira. Okendo plazan gaude, udaletxean bertan. Erregistro zibileko edozein kontsultarekin etorri behar da hona, hitzordua hartuta.

COVID-19a dela-eta, aldatu egin da zuen lan egiteko modua? Tramite hori egiteko, aurrez hitzordua hartu behar dut?

Bai. COVID-19aren aurretik ez zen beharrezkoa, baina orain bai. Andoaindaren kasuan 943 30 08 20 telefono zenbakira deitu behar dute. Urnietarren kasuan, berriz, 943 00 83 45 telefono zenbakira.

Bake epaitegira dokumentazioa eraman behar dut abizenak euskal grafiaz idazteko prozesuari ekiteko?

Beharrezkoak dira NANaren kopia, erroldaren ziurtagiria eta jaiotzaren hitzez hitzeko agiria. Ezkonduta egonez gero, horren ziurtagiria behar da, eta, seme-



Alberto Agirrezabala, Lasarte-Oriako bake epaitegiko bulegoan. TXINTXARRI

alabak edukiz gero, haien jaiotza-ziurtagiriak.

Nire deiturrekin batera, seme-alabek ere aldatzen dira?

18 urte baino gutxiago dituzten seme-alabei eragiten die gurasoen abizenak euskalduntzeak. Kasu horretan, biak etorri behar dira bake epaitegira, deiturak euskal grafia ekarri nahi dituen eta bestea ere bai, haren baimena behar delako.

Ordaindu egin beharko dut abizenak euskalduntzeagatik?

Ez. Erregistro zibileko tramite guztiak doakoak dira.

Abizenak ez ezik, izena ere euskal grafia ekar dezaket?

Bai. Legeak horretarako aukera ematen du. Prozedura berdina da, eta ekarri beharreko dokumentazioa ere bai.

Erraza da izen-deiturak euskalduntzea? Zenbat denbora iraun dezake prozesuak?

Erraza da, bai. Eskaera egiten da gure epaitegian, eta Donostiako erregistro zibilera bidaltzen dugu, haiek erabakia hartzeko. Onartzen bada, abizena euskaldundu duen pertsona horren jaiotzaren inskripzioan jaso behar

da, baita ezkontzaren eta seme-alaben inskripzioen alboan ere. Jaiotzaren inskripzioa Donostian bertan egonez gero, hamar bat egunetan egin dago. Beste herriren batean badago, denbora pixka bat gehiago behar da, baina, normalean, lau bat astean egin dago.

Nire abizenen grafia aldatu eta gero, lehengoarekin eginak dauden agiriak (NAN, gidabaimena, titulu akademikoak...) berritu behar ditut?

Bai, berritu egin behar dira, abizena aldatu egin baita. Aurrena, NAN agiria eta errolda, eta gero, beste guztiak.

Noiztik dute herritarrek abizenak euskalduntzeko aukera?

Abizenak euskalduntzeko prozesua 2000. urtean jarri zen martxan, 40/1999 legearen ondorioz.

Aurretik ez zen posible, beraz.

Erregistro zibileko legearen nondik norakoak ikusteko, abiapuntura jo behar dugu: hori 1957. urteko ekainaren 8ko legea da. 54. artikulua honela zioen: "Bataiatua izan denean ezarri zaion izena erabili behar da jaioberriak inskribatzeko. Izen-deitura horiek gaztelaniaz idatzita egon behar dute".

Artikulu hori berritu egin zuten hogeitau urte beranduago, 1977ko urtarrilaren 4an indarrean jarritako 17/1977 legearen bitartez: "Jaioberriari eman zaion izena erabiliko da hura inskribatzeko orduan. Izen horrek Espainiar Estatuko hizkuntzaren batean idatzita egon behar du".

Erregistro zibilaren legearen hurrengo erreforma 1999an egin zuten, 40/1999 legearen bitartez. Izen-abizenak aipatu zituzten orduko horretan, ez izenak soilik: "Interesa duten pertsonak edo haren legezko ordezkariak hala eskatuta, Erregistro Zibi-

leko arduradunak ordezkatu egingo du eskatzailearen izena, Espainiar Estatuko hizkuntzaren bateko baliokidea den horrengatik". Hori 54. artikulua da. 55.ak, berriz, honela dio: "Interesa duen pertsonak edo haren legezko ordezkariak hala eskatuta, Erregistroko arduradunak hasi egingo du eskatzailearen deiturak aldatzeko prozedura, Erregistroan abizen horiek ez baldin badaude Espainiar Estatuko hizkuntza horren grafia egokituta, gramatikalki zein fonetikoki". Orduan eman zen abizenak euskalduntzeko aukera zuzena, ordura arte deiturak aldatzeko prozedura erabili behar baitzen hori egin ahal izateko.

Zer eredu jarraitzen da izen-deiturak euskalduntzeko orduan?

Prozesu horretan oso garrantzitsua da Euskaltzaindiaren lana. Abizenak euskaratu nahi dituen pertsona batek Euskaltzaindiaren EODA Euskal Onomastikaren Datutegia [www.euskaltzaindia.eus/hizkuntza-baliabideak/onomastika] kontsultatu behar du, han azaltzen delako haren deiturak euskaraz nola idazten diren.

Apelliduak abizentzeko zenbat prozesu irekitzen dituzue urtean? Nolako da joera?

Urtero hamar bat espediente egiten ditugu abizenak euskalduntzeko. Azken urteetako joera kopuru horietan mantentzen da.

"ABIZENAK EUSKALDUNTZEKO TRAMITEA DOAKOA DA, ERREGISTROKO GUZTIAK BEZALA"

“Erraz egin nuela gogoratzen dut”

Eider Zubeltzu Loiarte hernaniarrak 2013. urtean euskaldundu zituen abizenak; ordura arte, Zubeltzu eta Loyarte izan ziren. "Senitarteko batek prozesu hori egin zuen; haren bitartez jakin nuen egitasmoaren berri", oroitu du. Zubeltzuk hiru seme-alaba ditu gaur egun. Deiturak euskaratzea erabaki zuenean, lehenengoarekin haurdun zegoen. "Abizenak euskalduntzeko arrazoi nagusia izan zen nire seme-alabek ere, jaiotzerakoan, deiturak euskaratuta izatea". Hernaniko bake epaitegira joan

zen tramitea egitera, eta honako hau kontatu du: "Prozesua erraz egin nuela gogoratzen dut".

Eider Zubeltzu Loiarte bezala, beste herritar ugari animatu izan dira deiturak euskal grafia ekartzera, apelliduak abizentzera. Egun batzuk gorabehera, prozesuak hamar egunetik lau astera irauten du normalean. Buruntzaldea eskualdea osatzen duten sei herrietan —Andoain, Astigarragan, Hernanin, Lasarte-Orian, Urnietan eta Usurbilen—

bizi diren herritarrek aukera dute prozesu hori egiteko. Herri horietako udalek euskarazko egitasmoak elkarrekin egiteko plan bat adostu zuten 2009-2010 ikasturtean; horretan jaso zuten, besteak beste, Apelliduak abizendu.

Euskaltzaindia eredu

Euskaltzaindia osatutako EODA Euskal Onomastikaren Datutegia hartzen da eredutzat abizenak euskalduntzeko irekitzen diren prozeduretan. Erakunde horrek plazaratu dituen datuak hiru atal nagusitan daude sailkatuta: deiturak,

pertsona-izenak eta lekuak. Abizenak euskal grafia ekarri nahi dituen pertsonak datutegi hori kontsultatu behar du, deitura euskaraz nola idazten den jakin nahi izanez gero.

EODAK 5.061 izen —emakumezkoenak, gizonezkoenak eta epizenoak, alegia, espezie bateko arra nahiz emea izendatzen dituenak— ditu jasota, eta 9.670 deitura. "Datutegiaren bidez, Akademiak berezko duen zerbitzu arauemailea gauzatu nahi du, gizarteari izen berezi horiek euskaraz nola erabili behar diren adieraziz, aholkatuz edota iradokiz".

Aguirre

Amezaga

Aramburu

Arrechea

Arregui

Azcárate

Bengoetxea

Bordaberri

Churrua

Echarri

Echeverria

Eguiguren

Escudero

Goicoechea

Gorrochategui

Gurruchaga

Ibarregui

Iparraguirre

Izaguirre

Lascuain

Lerchundi

Mendivil

Michelena

Apelliduenak abizendu

Aurkeztu beharreko agiriak:

- **Errolda agiria** (Zure udaletxeko bulegoetan egingo dizute).
- **Jaiotzagiri literala** (Zure udalerriko Bake Epaitegian egingo dizute. Donostian erregistratuta bazaude, Donostiako Erregistro Zibilera joan behar duzu (Kalkutako Teresa plaza z/g 943 00 07 30).
- **NANaren fotokopia**

Egin beharrekoak:

- **Agiriak herriko Bake Epaitegira eraman.**
Bertan egingo dizute aldaketa.
Zalantzaren bat izan edo argibide gehiago nahi izanez gero, deitu herriko Bake Epaitegira:

Andoain: 943 30 08 20

Astigarraga: 943 33 52 36

Hernani: 943 55 28 36

Lasarte-Oria: 943 37 16 29

Urnieta: 943 00 83 45

Usurbil: 943 37 23 36

Informazio gehiago:

Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udaletako Euskara-zerbitzuetan

Aguirre

Amezaga

Aramburu

Arrechea

Arregi

Azcárate

Bengoetxea

Bordaberri

Churrua

Echarri

Echeverria

Eguiguren

Escudero

Goicoechea

Gorrochategui

Gurruchaga

Ibarregui

Iparraguirre

Izaguirre

Lascuain

Lerchundi

Mendivil

Michelena

"Jende asko hurbiltzen ari da Altzarien azokara"

MARISA ITURBE ITURBE ALTZARIAK

Altzarien azoka antolatu dute, martxoaren 28ra bitarte. Goizez eta arratsalde zabalik izango da negozioa, eta igandean goizeko 10:00etatik 14:00ak arte.

Erredakzioa URNIETA

Altzarien azokan zer da bezeroak bilatu ohi duena?

Denetik. Etxeko altzariak berri-tu nahi izaten dituztenak dira, sukaldia aldatu nahi dutenak. Sofaren bila dabilzanak ere badira. Gauza handienetik txikienera, zerbait erosteko asmoa dutenak hurbiltzen dira.

Urtean behin egiten duzue azoka. Arrakasta duen seinale delako?

Erakuslehoan genuena prezio onean atera ohi dugu, eta horrela eskaintza berritzeko aukera izaten dugu. Bezero batzuk ohitura hartu dute, eta galdezka aritzen dira. Bezeroaren Astea noiz iritsiko zain izaten dira.

Aurtengoan zer nabarmenduko zenuke, eskaintza osotik?

Sukalde bat lakatua dugu, zuria. Oso sukalde ona da, eta hori da eskaintza nagusia. Bi sala badi-tugu, eta bat dagoeneko saldu da. Gazteei begira, logela saldu dugu, eta bi logela gehiago eta bizpahiru sofa aukera onean eskaintzen ari gara.

Familian bisitan joateko baldintzak daude, pandemia garai honetan?

Denda handia dugu, 650 metro karratukoa. Prebentzio neurriak betetzeko adina espazioa dugu, beraz, alde horretatik lasaitasun mezua zabaldu nahiko nieke bezeroei. Etor daitezela, lasai.



Iturbe Altzariak dendaren erakusketa gunea. AIURRI

Krisia edo pandemia garaia nabaritzen duzue bezeroen artean?

Krisiaren eragina ez gara noiztzen hasi, oraindik. Pentsatzen dugu, beharbada, aurrerago nabaritu litekeela. Une honetan jendeak denbora gehiago ematen du etxean, eta etxea eroso,

polit eta gustukoa jarri nahi dutela ikusten ari gara. Etxe barruan diru gehiago inbertitzen ari dira.

Beharbada, egoera zaila delako, azoka bereziak ohikoan baino bezero gehiago erakarri ditzake?

Aurten, egoera berezi honetan, gure zalantzak genituen. Ez genekien nola joango zen aurtengo, baina, lehen bi egunetan, aurreko urteotan baino jende gehiago mugitzen ari da. Pozik gaude, eguraldiak ere laguntzen duelako. Gustura gaude, jende asko hurbiltzen ari delako.

"JENDEAK DENBORA GEHIAGO EMATEN DU ETXEAN, ETA EROSOA ETA GUSTUKOA JARTZEN ARI DIRA"



AIURRI

Ermotegiko etxebizitzak

"Gero eta gertuago dago eraikuntzaren hasiera", adierazi du Urnietako Udalak. Ermotegin 130 etxebizitza eraikitzeko asmoa dago, eta prozedura oso aurreratuta dagoela dirudi. Berriki, Birpartzelazio Planari hasierako onarpena eman diote Tokiko Gobernu Batzarrean. 2020ko abenduaren 4ko bilkuran, Plan Berezia aho batez onartu zuten udaletxean.



ALDUNDIA

TicketBAI sistema

Foru Aldundiak jarduera ekonomikoaren fakturaziorako eredu berria martxan jarriko du, eta hainbat ikastaro egiten ari dira. Beterri-Buruntza agentziazik aditzera eman dutenez, "2022ko urtarilaren 1etik aurrera jarduera ekonomikoa egiten duten pertsona fisiko nahiz juridiko guztiek modu mailakatuan eta progresiboan erabili beharko dute".

ALTZARIAREN AZOKA URNIETAN

MARTXOAK 22-28

Ordutegia:
9:30-13:00 /
16:00-19:30
IGANDEAN,
10:00-14:00

DESKONTU PAREGABEAK!

JARRAI GAITZAZU!
#muebles_iturbe

Igarategi Industrialdea 70
(Iberianarako tren-geltokiaren
errepidea) 20130 URNIETA
M. 688 632 191 T. 943 552 750
mueblesiturbe.com

iturbe
BURALDIA, ETXEA & ERREDAKZIOA

Urnietako udala



AIURRI

Ezusteko heriotza

Rosa Maria Suarez martxoaren 18an hil zen, bihotzekoak jota. Algodonerako emakumeen erakusketan parte hartze aktiboa izan zuen, haren kotoizko panpinak ikusgai ipini zituztelako. Pozarren agertu zen Basteron, martxoaren 5ean: "Argi nuen Andoainera hurbildu behar nuela, deitu zidaten une beretik". Bere aita Enrique Suarez, 50eko hamarkadan Algodonerako jabea izan zen.



AIURRI

"Ibili Andoain" ekimena

Ariketa fisikoa eginez, adineko pertsonen arteko harremanak sustatzea eta erraztea helburu du ekimenak. Andoaingo Udala da sustatzaile nagusia, herriko hainbat elkarterekin lankidetzan. Martxoaren 3an jarri zuten berriro martxan, izurritea dela eta hilabeteetan etenda egon ondoren. Aste Santuko oporraldia eta gero, ekimenarekin jarraitzeko asmoa dute.



Astez asteko intzidentzia

ANDOAIN

- **Martxoak 17-23:**
14 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 186,82.
- **Martxoak 10-16:**
14 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 140,11.
- **Martxoak 3-Martxoak 9:**
7 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 73,39.
- **Otsailak 24-Martxoak 2:**
4 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 100,08.
- **Otsailak 17-Otsailak 23:**
11 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 140,11.
- **Otsailak 10-Otsailak 16:**
10 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 240,19.
- **Otsailak 3-Otsailak 9:**
26 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 373,63.
- **Urtarrilak 27-Otsailak 2:**
30 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 680,54.
- **Urtarrilak 20-26:**
72 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 887,38.
- **Urtarrilak 13-19:**
61 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 834,00.

URNIETA

- **Martxoak 17-23:**
5 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 128,85.
- **Martxoak 10-16:**
3 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 128,85.
- **Martxoak 3-Martxoak 9:**
5 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 96,63.
- **Otsailak 24-Martxoak 2:**
1 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 32,21.
- **Otsailak 17-Otsailak 23:**
1 kasu positibo.
- **Otsailak 10-Otsailak 16:**
1 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 144,95.
- **Otsailak 3-Otsailak 9:**
8 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 499,28.
- **Urtarrilak 27-Otsailak 2:**
23 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 837,49.
- **Urtarrilak 20-26:**
29 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 853,60.
- **Urtarrilak 13-19:**
16 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 467,06.



IREKIA

Kontrolak San Jose zubian

Euskadik mugikortasunari mugak jarri dizkio, COVID-19 krisia dela eta. Aurreko asteburuan Ertzaintzak kontrolak ezarri zituen Sorabilla aldean, Nafarroatik zetozen gidarien kontrola ezartzeko. Baita kontrako norabidean ere. Gauzak ondo, Aste Santuan mugikortasuna Euskadin barrena baimenduta egon daiteke. Ez, ordea, Erkidegotik irten edo sartzeko.



AIURRI

Elkarretaratzea, larunbatean

Aspaldi artxibatutako auzia berriro irekitzea erabaki dute, eta, hori dela eta, Ruben Genbeltzu andoaindarraren eta Jon Lizarribar urnietarraren aurkako prozedura berriro martxan jarri dute. Genbeltzu Arbizon bizi da, eta Iruñeko epaitegien baitan dago bere kasua. Larunbat honetarako bien aldeko agerraldia deitu dute Goikoplazan, 12:00tan hasita.



andoainDARRA
euskaraz

Lizeaga bueltan da. 28 kilometroko proba korrituko du bailarako mendietan barrena, datorren apirilaren 17an. **AJURRI**

“Oraindik kosta egiten zait mundu honetan zergatik nagoen sinestea”

JOKIN LIZEAGA MENDI KORRIKALARIA

Apirilaren 7an hiru urte beteko dira Lizeaga Asturiasen mendiko zulo batera jausi zela, eta herriari eta Euskal Herriari osatu dela jakinarazteko erronka iragarri du

Andoni Urbistondo URNIETA

Hiru urte, 1096 egun beteko dira 2018ko apirilaren 7 madarikatu hartatik, bi aste barru. Pastores de la Portudera mendi-lasterketan lider zihola, 15 metroko zulo batean jausi zen Jokin Lizeaga. Bizirik irauteko herioan, zuloan gora eskalatu, eta beste korrikalarien arreta erakartzea lortu zuen, hotzez hilko nintzen, bestela. Hilan mundutik bizien mundura pasa zela onartzen du egun ere. Gorriak ikusi ditu, oinazeak han eta hemen, ezina,

eta zehar kalte neurologikoak presente bizitza guztirako. Baina itzuli egin nahi du, korrikalari sentitzen dela erakutsi berriro zale, lagun eta familiari. Bitartean, bizitzak eman zion bigarren aukera horren zergatia bilatzen jarraitzen du.

Hiru urte laster, zulo hartara jausi zinenetik. Zer moduz zaude?

Azkar pasa dira, baina luze ere bai. Une gogorak asko, eta kalteak ere ezin ahaztu. Azaroaz geroztik korrika egiteko gai naiz, lau bat hilabete bai jarraian da-

goeneko, eta horrek konfiantza eman dit berriro dortsala jarri eta amets, erronka, obsesio hori bete ahal izateko. Izan dira uneak non ez nuen uste gai izango nintzenik berriro mendian korrika saio bat osatzeko, eta orain banaiz. Bilakaera hori ikusita, apirilaren 17an, Urnieta eta ondoko herrietako mendietan barrena halako korrika-saio bat egingo dut, herriaren, herritarren aurrean korrika egiteko.

Une txar asko pasatakoa zarela aitortu duzu.

Bai, asko egon baitira. Erori eta berehala, lesioak, beldurrak, heriotza gertu, amesgaizto bat. Sei hilabete pasata, azaroan edo, lo gutxi egiten nuela jabetu nintzen, ordu pare bat asko jota gauetan. Esna, ordu asko, eta halako batean, autoan gidatzen nindoala, ezkerreko begia itsu geratu zitzaidan, ez nuen ikusten. Garuneko erresonantzia bat egin bezperan gertatu zitzaidan, gainera. Orkatiletan, sorbaldan eta beste mila oinaze izan ditut, baina bistaren arazoarekin alderatuta, txikikeriak. Degenerazio bat jasan nuen nerbio optikoan, eta horren sorburu, ba hainbat hipotesi: tumorearen bat, edo beste gaixotasun larriren bat... Burrumba, zurrumbilo horretan sartuta eman ditut azken bizpahiru urteak, probak han eta hemen, sei hilabetero neurologoarengana bisita, analisiak, antigorputzak, erresonantziak... Ez da samurra izan, beldurra sentitzen da.

Erorketaren egunaz, uneaz gogoratzen zara?

Bai. Nagoen egoeraren arabera, maiz. Adibidez igogailua erabiltzen dudanean, altura hartzen dudanean, edo etxebizitza bateko pisu garai batera igotzean. Erorketa, altura etortzen zaizkit burura, zergatik nagoen bizirik, eta beste. Beldurrak geratu zaizkit iltzatuta. Hilkorra izatea zer zen ez nekien, eta orain badakit banaizela, gerta daitekeela.

Buruak oinazeak fisikoak baino mingarriagoak izaten al dira?

Buruak lan handia egiten du. Eta beldurra sentiarazten dizu. Ez dut eskiatu, hiru urte haue-tan, adibidez. Urnietako inguruetatik urrun ere ez naiz ibili korrika. Lizartza aldean, akaso, han borda bat daukagulako. Etxe inguruko tokiak kontrolatzen ditut, ezagutzen ditut, eta zerbait pasaz gero, etxe inguruan beti. Demagun erorketa baino lehen comfort gunen horretatik ateratzeko arazorik ez neukala, eta orain, aldiz, bai.

Hil egingo zinela sinetsi zenuen, baina ez zinen hil. Nola kudeatzen da bizipen hori?

Esan liteke baietz. 15 metroko zulo batean behera jausi, non geratuko nintzen jakin gabe... Behin geratuta, gora begiratu, eta kafea hartzeko plater txoaren tamainako zulo txiki bat baino ez nuen ikusten. Izoztutako elur ura etengabe jausten zen nire gainera, hotza egiten zuen... den-

bora kontua zen han hiltzea, eta erraza ez norbait jabetzea ni han jausi nintzela, lehena bainintzen lasterketan, eta alde handiarekin bigarrenarekiko... Onartzen hasi nintzen, akabo, eta tristura une gogorak bizi izan nituen. Umee-kin gogoratu nintzen, aita nola hil zen ez zutelako jakingo, eta akaso egunen batean hilotza bi-latuko zutela. Txarrean zorte apur bat ere izan nuen. Zutik geratu nintzen, kontziente, odol isurtze handirik gabeko zauriak... Erabaki onak ere hartu nituen berehala, jatea eta gorputza berotzen saiatzea bezala.

Zulora bueltatu zinen, urrian. Zergatik?

Bai, iazko urrian, suhiltzaile baten laguntzarekin. Beharra neukan. Nolakoa zen, zergatik nagoen bizirik... Zuloa ikusita bizirik ateratzea mirari are handiagoa izan zela sentitu nuen. Zilindro bertikal batean erori nintzela uste nuen, baina ertzez jositako kareharri zuloa zen, eta nik tibian eta buruan zauri ari-nak bakarrik jasan nituen. Jausi baino lehenagoko argazki bat bidali zidaten, bi kilometro lehenago edo ateratakoa, eta argazki horretan halako eskaintza bat idatzi nuen, zuloan bertan utzi eta eskerrak emateko. Txilibitua eta erlojua ere berreskuratu nituen, erorketan galdu nituelako, eta han utzitako zaborra ere bildu nuen. Hainbat animalia-buru hezur ere ikusi nituen, eta horrek buru jan dezentekoa eragin zidan. Psikologikoki mesede egin zidan hara jaisteak. Kosta egiten zait ulertzea oraindik zergatik nagoen hemen, baina gauzak horrela dira.

Kontziente zara fisikoki, baina batez ere mentalki, oso jarrera tinkoa eduki zenuela zulotik irteten saiatzeko.

Nik ere pentsatu dut zergatik ez nintzen hasi hormari kolpeka, zergatik egokitu zitzaidan halakorik niri, nolatan ez nintzen lehertu, eseri, eta ordu pare batean hipotermiak jota heriotzaren zain geratu. Zorionez borrokatzea erabaki nuen, indarrak gorde, berotu, oi-hu gutxi egin, esperantzari eutsi, eta ez itzaltzeko lasterketa batean murgildu. Urrian, sokarekin eskalatu nuenean zuloako hormak bosgarren graduako pasoak zituela jabetu ginen. Pentsa ni egon nintzen egoeran, nola demontre igo nintzen zulorantz. Zortedun izan nintzen, oso.

Bada bideo bat hor bueltaka, 'La Voz de Asturias' kazetak argitaratutakoa, non zulotik ateratzen zaituzten unea ikusten den. Askotan ikusi duzu bideoa?

Tarteka. Une hori gaindituta daukadala esango nuke.

32 gradukoa zen zure gorputzeko temperatura zulotik atera zintuzte-nean. Helikopteroa, erietxea, senitartekoak berriz ikusi... Ze oroitzen dituzu?

Hutsune handi bat daukat tarte horretan. Helikopteroaren soinuarekin amestu nuen, artean istripuaren gunera iritsi gabe zela. Suhiltzaileak ikusi bezain pronto mareatzen hasi nintzen, lotzeko esan nien, eta mina kentzeko botikaren bat sartu zidaten. Sorbalda bere lekuan sartzeko piolet bat erabili zutela ere gogoan dut, baina ondoren ordu batzuk desagertu egin dira oroimenetik. Erietxean Ainhoa emazteari gose nintzela esan nion, sei-zortzi donut edo antzekoak jan nituen. Sagardotegian tokia gordeta geneukan afari oparoa egiteko, Javi Dominguez eta beste lagunekin, eta azalduko nintzela esan nien, ondo nengoela... Bistan da halako shock egoera batean nengoela, eta ez nuela benetako errealitatea ezagutzen.

Galderarik egiten al dizute haurrek?

Bai, bai. Badakite zuloa bisitatzera joan behar dugula denok. Beraiek ere ikastolan kontatzen dute, irakasle berriren bat etortzen denean-eta. Lagunekin gaudenean askotan ateratzen da gaia, eta beraiek han daude, entzun egiten dute.

Ainhoa izango zen, noski, zure ezkutu erabiliena. Nola eraman duzue gaia?

Ondo esango nuke. Berak ni baino gehiago sufritu du. Nik barrutik eraman dut, eta azaltzen ziren zeharkalteak ondo barneratu nituen. Esango nuke berak okerrago eraman duela. Nahi dudana egiten utzi dit, nire mar txan ibiltzen, eta eskerrak eman behar dizkiot horregatik. Bajan urte eta erdi eman nuen, lanera bueltatzeko komeriekin, gero konfinamendua etorri zen, eta oso elkarrekin egon gara bostok. Ezkondu zintzen.

Bai, istripua eduki eta 15 egunera. Aztertua eta planifikatua geneukan, istripua gertatuurretik. Zuloan buelta batzuk eman nizekin, eta gero, segituan paperak egin genituen, zorigaitoren bat geratzen bada, emazteak

eta haurrek babes bat izan dezaten.

Noiz bueltatu zinen lehen aldiz Urnietako mendietara?

Egun zehatza ez dut gogoan. Oraindik igeltsuarekin nengoela izango zen, eta Onddira. Orroren bat bota nuen, han. Oso mendi gustukoa dut Onddi, samurra, polita da. Datak gordetzeko-eta ez naiz batere ona, baina ondo gogoratzen naiz ze oinaze izan ditudan, eta zenbatetan irten naizen korrika saio bat egiteko asmoz, 200 metro egin eta herrenka, burua makurtu eta etxera. Bizikletan ere hasi nintzen, hor minik ez nuelako sentitzen. **Trauma neurologiko bat ere geratu zaizu, erorikoaren ondorioz, eta itxuraz, luzerako.**

Bai. Korrika egiten dudanean eta bihotz taupaden erritmoa handitu, ezkerreko bista galtzen dut, lainotu egiten zait. Kosta zait, baina ohitzen hasi naiz. Nerbio optikoaren degenerazioa da, %30 galdu dut, eta buruko temperatura igotzen denean, ba ezkerreko begiko arazoa sortzen da. Ez dirudi erremediorik duenik. Erorikoak halako estresa sortu zuen nerbio optikoan eta horrela nago. Mentalki ez naiz etxetik sobera urruntzera ausartzen, nire motorrean konfiantza gutxi daukadalakoa. Lehen ez nuen inoiz sakelakoa eramaten. Orain beti nirekin, badaezpada. **Oinaze fisikorik baduzu, oraindik?** Bai, bizkarrezurrean, batez ere. **Noiz hasten zara apirilaren 17ko lasterketa horretan pentsatzen?** Otsailean halako jarraipen bat lortzen ari naizela ikusten dut, ez hasi, geratu eta berriro hasi. Korrikalari sentitu naiz berriz azaroz geroztik. Obsesio puntu bat eduki dut, berriro dortsala jartzeko, berriro korrikalari sentitzeko, istripuak ezin zidala gogoa, desioa kendu. Herren edoitsu egon, dortsala jantzi nahi nuen, eta hori gertu ikusita, ba herrian zerbait egitea pentsatu dut. Herritarrek, Euskal Herriak, Jokin Lizeaga oraindik mendian korrika ibiltzeko gai dela jakitea nahi dut.

Garbi duzu Zegama-Aizkorri bukatu nahi duzula, Sancti Spiritun

"DORTSALA JANTZI NAHI NUEN, ETA HORI GERTU IKUSITA, HERRIAN ZERBAIT EGITEA PENTSATU DUT"

elkartzen den Urnietako jendearekin, Aizkorriko ermitara daraman pasabidean, Zegamako plazan...

Bai, Zegaman berriz korrituko dudala garbi daukat. Mendian korrika ibili banaiz Zegama-Aizkorri maratoiari esker da. Euskal Herriaren nortasunaren ispilu da lasterketa hori: zale onak, denei berdin animatzen dien zalea, eta hori beste herrietan ez da gertatzen. Probako antolatzailleak ere lagunak ditut, eta esfortzu hori egin nahi nuke.

Lasterketa, apirilaren 17an

Apirilaren 17an da hitzordua, goizeko bederatzieta hasita Urnietako San Juan plazan. Jokin Lizeagak 28 kilometroko mendi lasterketa korrituko du, hainbestetan ibili den mendietan barrena. Urnietako plazatik Onddo igoko du aurrena, Etenetan barrena. Ondoren Adarramendiren txanda izango da, gero Onddi, handik Hernanira jaitsi eta Santa Barbarara, Saretxo aldetik, eta azkena, Buruntza, Azkorteko ermitan barrena. Buelta bide beretik, eta herriko plazara aldapeta maldan barrena. Lizeagak ez du markarik egiteko asmo berezirik, baina bi ordu eta erdiren bueltan egitea espero du.

TERNUA

KIMERA
Fisioterapia - Osteopatía

BAILARAKO 5 TONTORREN MARKA SAIKERA

Onddo-Adarra-Onddi-Santa Barbara-Buruntza

(28km-ko luzera eta 1750m-ko desnibel positiboa)



JOKIN LIZEAGA

"EZINA, EKINEZ EGINA"

2021eko apirilak 17, larunbata
Goizeko 9:00-tan Urnietako plazan

Aurreko marka (1997/10/25): Emaitz Jover (Zato) urnietarrak:
Urnietako-Adarra-Onddi-Santa Barbara-Buruntza-Urnietako (3h 12' 50")

zonbatuz
mendiak

AIURRI
KRONAK



Brontzezko domina, Espainian

ATLETISMOA 16 urte azpiko Espainiako txapelketan parte hartu du Mikel Campos urnietarrak, Oviedo hirian



Unai Roldan prestatzailea eta Mikel Campos korrikalaria. ROLDAN

Erredakzioa URNIETA

Aurreko asteburuan Asturias aldeko Oviedo hirian, 16 urtez azpiko XXXIV. Espainiako txapelketa antolatu zuten, eta bertan Mikel Campos atleta onenetsuen artean ibili zen. Bi probatan parte hartu zuen. 60 metrokoan Mikel bosgarren sailkatu zen, 7.27" denborarekin.

300 metrokoan, berriz, hiru garren sailkatu zen eta ondorioz brontzezko domina jaso zuen. 37.28"-ko denbora egin zuen.

Roldan entrenatzailearen esanetan, "Mikel Camposek pista estaliko denboraldiari sekulako amaiera eman dio, estatuko mutil azkarrenetarikoa bihurtu baita".

Andoaingo Txirrindulari Eskolakoak, errepidean

TXIRRINDULARITZA Kadete mailako lasterketak antolatu zituzten Zarautzen

Erredakzioa ANDOAIN

Denboraldia aurrera doa, eta joan zen asteburuan kadete mailakoak lehian aritu ziren.

Kadeteak, Zarautz | 2021.3.21

Sailkapena, kadeteak 1. maila:

1. Aritz Aranbarri (A.Sanz)
 2. Iker Villar (EGA Perfil)
 3. Marco Martin (G.Vasca)
68. Oihan Mitxelena (Andoaingo)
- Sailkapena, kadeteak 1. maila:
1. Guzman Grecco (S.Zadorra)
 2. Beñoi Diaz (Arabarrak)
 3. Gabi Ugarte (Zatika)
 10. Markel Etxarri (Andoaingo)
 16. Iker Ugartemendia (Andoaingo)
 60. Ganix Ormazabal (Andoaingo)

Gipuzkoako txapeldun-ordeak

PILOTA Nora Mendizabal eta Naroa Agirre Gipuzkoako Klub Arteko txapelketan txapeldun-orde dira



Naroa Agirre eta Nora Mendizabal pilotariak. DANBOLIN.EUS

Erredakzioa ANDOAIN

Gipuzkoako Klub arteko txapelketako finala jokatu zen, aurreko asteburuan. Miren Larraite eta Mirian Arrillaga bikotearen aurka aritu ziren, Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan. Nora Mendizabalek eta Naroa Agirrek 22-9 galdu zuten, Anoetako bikotearen aurka.

Galdu arren, maila ona erakutsi zuen Mendizabal-Agirre bikoteak. Andoaindarra zer esana ematen ari da azken hilabeteetan. Izan ere, maila altuko txapelketa ugari jokatzen ari da.

Duen adinarekin, ibilbide interesgarria egiten ari da pilota munduan.

SAHARAREN ALDEKO BERTSO SAIOA

Andoaingo Bastero Kulturgunean
Martxoaren 28an, 12:00tan

Sarrerak salgai:
Delgado, Ernaitza, Stop eta Urrats **6€**

Eli Pagola
Alaia Martin
Aitor Mendiluze

Iker Zubeldia
Andoni Egaña
Maialen Lujanbio

Gai jartzailea: Unai Ormaetxea

ANTOLATZAILEAK

LAGUNTZAILEAK

BI SARRERA ZOZKETAN:
Bidali 'bertso-saioa'
hitz gakoa: 619 163 537
whatsapp zenbakira.
Azken eguna: martxoak 26

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTIRALA 26

ANDOAIN Kontzertua

Xabier Leteri kantari: Joserra Senperena piano-jotzailea, Xabier San Sebastian kantaria, Quico Pugés biolontxelo-jotzailea eta Beñat Gaztelumendi bertsolaria.

19:00, *Bastero*.

ANDOAIN Merkataritza

Andoaingo Salkin elkartearen ekimen berria. 5 euroko bonifikazioa, erosketa txartelarekin egiten dutenen artean.

Apirilaren 30era arte.

LARUNBATA 27

ANDOAIN Elkarretaratzea

"Errepresioari Stop: Elkartasuna Ruben eta Jonekin". Ruben Gurekin ekimenak antolatuta.

12:00, *Goikoplaza*.

IGANDEA 28

ANDOAIN Korrikaren alde

"Bultza euskaltegiak, bultza euskara!", AEKren eskutik.

11:00, *Goikoplaza*.

ANDOAIN Bertso saioa

Hurria Sahara elkarteak antolatuta: Eli Pagola, Alaia Martin, Aitor Mendiluze, Iker Zubeldia, Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio.

12:00, *Bastero*. 6 euro.

URNIETA Korrikaren alde

"Bultza euskaltegiak, bultza euskara!", AEKren eskutik.

12:00, *Etxeberri plaza*.

ASTELEHENA 29

URNIETA Gaztelekua

DBH-ko nerabeentzat zabalik, bertan jolastu, elkartu eta egon daitezten.

17:00-20:00, *Gaztelekua*.

ASTEAZKENA 31

ANDOAIN Erakusketa

"Dantza" erakusketa, film ezagunean egindako lan estetiko biltzen duena.

Aste Santuan zabalik. Bastero.



Batukada feminista Andoainean, artxiboko irudian. AIURRI

ANDOAIN Batukada feminista

Andoaingo Jabekuntza Eskola martxan dago, eta hainbat tailer eta ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago. Lehen hitzorduak musikarekin du zerikusia. izena emateko emaila: berdintasuna@andoain.eus. Telefono zenbakia: 943 300 830. Luzapena: 380-397. Jabekuntza Eskolaren baitan aukera zabala dago, udaberrian. *Lehen hitzorduak: Apirilak 12 eta 26. 18:00-20:00. Leizaran institutua.*



Plater tiraketa antolatu ohi du Santa Kruz elkarteak. SANTAKRUZ

URNIETA Santa Kruz ehiztari eta arrantzaleen elkartearen batzarra

Urteko batzar nagusian honako aztergaiak landuko dituzte: 2020. urtean egindako ekintzen berri ematea, bazkideen altak eta bajak, urteko diru kontuak, zuzendaritza batzordearen aldaketa, barne-araudia berritzea eta galde-erreguak. Bazkideek urteko kuota apirilean ordainduko dute.


Martxoak 28, igandea. 11:00. Frontoia.

www.aiurri.eus



- Iritzia
- Postontzia
- Komunitatea

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO**

El profesor de persa (Persian Lessons)

Lar., 27. 19:00.

Ig., 28. 19:00.

Astel., 29. 19:00.

Haurrentzat:

Escuela de miedo

Lar., 27. 16:30.


Ig., 28. 16:30.

Caminho longe

Dokumentala:

Apirilak 22.

Osteguna, 19:00.



SINOPSIS

**El profesor de persa**

Zuzendaria: Vadim Perelman. **Aktoreak:** Nahuel Pérez Biscayart, Lars Eidinger, Leonie Benesch, Jonas Nay, David Schütter...

Herrialdea: Errusia (2020). **Hizkuntza:** Gaztelania.

Generoa: Drama. **Iraupena:** 126 min.

Nazien hatzaparretan

Gilles SSko naziak abxilotu dute, eta Alemaniako kontzentrazio-eremura daramate. Heriotza gertu duela, persiarra dela adierazten du. Eta ez judutarra. Bizitza barkatuko diote, baina

trukean militar bati Persiako hizkuntza erakutsi beharko dio. Jukutria horri esker bizirik aterako da, baina ezagutzen ez duen hizkuntza erakutsi beharko du.

SINOPSIS

**Escuela de miedo**

Zuzendaria: Leopoldo Aguilar. **Herrialdea:** Mexiko (2019).

Generoa: Marrazki bizidunak fantasia. **Iraupena:** 81 minutu.

Hizkuntza: Gaztelania.

Beldurrezko zinema haurrentzat

15 urteko nerabeak utzitako orube batean zegoen tresneria piztu eta beste dimentsio batera

doa, zeinean izaera guztietako monstruak topatzen dituen. Beldurrezko zinema haurrentzat.

Aisialdia Aste Santuan, Urnietako gazteei begira

Gaztelekuan
izena emateko epea
martxoaren 26an
amaituko da

Erredakzioa URNIETA

Urnietako gazteentzat aisialdiari loturiko hitzordu-sorta antolatuta du Gaztelekuak, martxoaren 29an hasiko dena eta apirilaren 9an amaituko dena. Izena emateko Gaztelekura bertaratu behar da, martxoaren 26ra bitarte. Ordu-egia hauxe da: ostegunean 17:00etik 20:00ra, eta ostiralean 17:00etik 21:00era.

Irteera ezberdinak aurrikusten dira: Paint ball saioa Zubietan, eskalada Santa Barbaran, Urgullera irteera... Bestalde, Gaztelekua zabalik izango da eta bertan, besteak beste, eskularen tailerra iragarrita dago.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 27, igandea 28

Pajares: Zumea kalea, 20.
943 592 629. Andoain.


URNIETA

Larunbata 27, igandea 28

Gomez: Kale Nagusia, 14.
943 554 892. Hernani.

ORDU ALDAKETA

Udako ordutegia
estreinatu dugu
martxoaren 28an:
goizeko 02:00tan,
03:00ak izango
dira.



TELEFONO ZENBAKIAK

URNIETA

Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.

Ertzaintza: 943 538 840.

Urnietako: 943 006 680.

ANDOAIN

Udaltzaingoa: 943 300 819.

Ertzaintza: 943 538 840.

Arbulatorioa: 943 006 670.



AIURRI

Egunean Behineko irabazlea

"Txurruskita" k eraman zuen lehen saria (Mizpiradi), "Lupita" k bigarrena (Zabala), "Miren" ek hirugarrena (Gaztañaga), "Artxi" k larugarrena (Aburuza), "Miren" ek bosgarrena (Aburuza) eta Anek seigarrena (Altuna). Argazkian, Ane. Zazpigarrena, "Ipernas" izan da (Setien).

ZORION AGURRAK



ANDOAIN

Asier eta Unai


Martxoaren 26an 16 urte betetzen dituzue!
Zorionak eta segi orain bezain jator! Muxu
handi bana amonaren eta aitonaren partetik!



ANDOAIN

Anje

Anjek 3 urte beteko
ditu martxoaren
25ean. Aurten
behar bezala
ospatuko dugu!
Muxuak txapeldun!
Etxekoak.



ANDOAIN

Libe Izagirre

9 urte potolo!
Zorionak printzesa
maite zaitugun
guztion partez eta
ondo-ondo pasa!
muxu pila bat opari
zuretzat!

Urte askotarako!

- www.aiurri.eus Zorion agurrak atalean
- **Whatsapp bidez:** 619 16 35 37
- diseinua@aiurri.eus
- **Arantzibia 4-5, behea** Andoain
- **Telefonoa:** 943 300 732

Andoaingo emakumeentzako Jabekuntza Eskola UDABERRIKO IKASTAROAK 2021

Batukada Feminista

- Astelehenak, 18:00-20:00.
- **Apirilak 12, 26; maiatzak 10, 24; ekainak 7, 21.**
- Leizaran Institutua.
Botapa Batukada. Ete bitan.



Sendabelarrak

Urtegain, Kris Uzarraga. Ete bitan.

SENDABELARRAK I

- Astearteak, 18:00-20:00.
- **Maiatzak 4, 11, 18, 25; ekainak 1.**

SENDABELARRAK II

- Ostegunak, 18:00-20:00.
- **Maiatzak 6, 13, 20, 27; ekainak 3.**

Autoestimua lantzen

- Astelehenak, 10:00-12:00.
- **Maiatzak 10, 17, 24, 31.**
- Urtegain, Nerea Redondo Otamendi. Ete bitan.

Mindfulness

Urtegain, Clara Wolfram

MINDFULNESS I

- Astelehenak, 17:30-19:30.
- **Apirilak 12, 19, 26; maiatzak 3, 10, 17, 24, 31; ekainak 7, 14.** Euskaraz.

MINDFULNESS II

- Asteazkenetan, 17:30-19:30.
- **Apirilak 14, 21, 28; maiatzak 5, 12, 19, 26; ekainak 2, 9, 16.** Gaztelaniaz.

Autodefentsa feminista

- **Ekainak 12.** 10:00-14:00 eta 15:00-19:00.
- Allurralde kiroldegia.
Emagin elkarteak. Ete bitan.



Jatorri anitzetako elkargune multikulturala

- **Urte osoan, ostiralean,** 17:00-19:00
- Urtegain, Sorburu, Gaztelania

Tertulia feministak

- **Apirilak 15:** MUJERES Y DISCAPACIDAD, Rosa Ugaldes (Elkartu).
- **Maiatzak 13:** MENOPAUSIA-PLÉNIPUSIA, Andoaingo FLAX! Sexologia zerbitzua. Arremanitz Koop.
- **Ekainak 10:** Asociación de mujeres y jóvenes musulmanas. BIDAYA

Bastero Kulturagunea, 18:30,

Ez da aurretik izenik eman behar, sarrera librea, atoroo bete arte.



ANDOAINGO UDALA

IZEN EMATEA ETA HARREMANA:

www.andoain.eus

Andoaingo Udaleko Berdintasun lantaldea: Tel. 943 300 830, luz. 380 - 397

berdintasuna@andoain.eus • Andoaingo Udaleko ATARIA zerbitzua



Xabier Artola argazkilaria eta Koldobika Jauregi artista, Bastero Kulturgunean. AIURRI

'Dantza' filmean erabilitako jantziak

Martxoaren 31n irekiko ditu ateak, Basteroko erakusketa berriak. Koldobika Jauregik "Dantza" filmerako diseinatutako jantziak eta Xabier Artola argazkilaria grabaketan egindako argazkiak ikusi ahal izango dira bertan, hainbat azalpenekin batera

Xabier Lasa ANDOAIN

"Dantza" filmaren eta Andoaingo Rock Jaialdiaren inguruko erakusketa bana iragarri dituzte martxo, apiril eta ekainerako, Basterok eskaintzen duen udaberriko kultur programazioaren baitan.

Sinbologiak garrantzia handia hartuko zuen filma errodatzea izan zen Telmo Esnal zine zuzendariaren hasiera-hasierako asmoa; bizitzako zikloa irudikatuko zuen dokumentu ikusgarria nahi izan zuen sortu, alegia. Eta Juan Urbeltz folkloristaren teorizatutako interpretazioez baliatu zen, horretarako. Aldi berean, Koldobika Jauregiri eman zion

filma estetikaz janztearen ardurak: dantzarien jantziak zein horiekin errodatu beharreko eszenetarako inguruan behar den elementu-multzoa edo atrezzo diseinatzearen ardura, hain zuzen.

Alkizako artistak, Urbeltzen teoretatik abiatuta, estetika tradizionala eta garaikidea uztartu nahi izan zuen, eta edertasun formal handiko diseinu artistikoa sortu zuen, kolore biziak nabarmenduz.

Jantzi deigarri horiek erakusteko aukera emateaz gain, horiek irudikatzen dituzten esanahiak azaltzea da erakusketaren helburu nagusia, Jauregiren ustez: "Dantzaz dantza aurrera doan

filma da "Dantza", abailan doa ikuslearentzat, ordu eta erdiko iraupenarekin. Bada, erakusketak filma geldiarazten ahalegintzen da; ikusleari azaldu nahi dio halako edo holako dantzetan dantzariak zergatik jantzen diren modu horretan, zergatik erabiltzen dituzten oihal horiek, zergatik atrezzo hori... Denak dauka bere sinbologia eta bere zergatia, atzetik".

Ironiari heltzen dio "Baten batek galdetu izan dit ea sormen prozesuan zehar sustantzia sikotropikoren bat hartu ote nuen. Baina "Dantz" a filmaren atzean dagoena aztertuz gero, argi dago dantzen oinarria, Urbeltzen ho-

riekin egindako ikerketa-lana eta bere sinbologia guztia islatzen dela. Eskema tradizionalarekin jokatzen segitzen dugu askotan, eta iruditzen zaigu euskaldunok bakarrik garela folkloren eta beste hainbat kultur adierazpenetan. Baina egiaz, ez gara uste dugun desberdinak. Munduko beste kulturekin hartu eman handiak izan ditugu mendeetan zehar. Horrexegatik, filmak beste kultura horiekin zer nolako erlazioak dauzkagun islatu nahi izan du. Izan ere, geure dantzen jatorria aztertzen hasi, eta ohar-tzen zara bazter guztietan errepikatzen direla, gutxi asko. Esate baterako, Ameriketara lehen bidaiak egin zirenean, ez ziren soilik barkuak, pertsonak, militarrek... joan. Haiekin, kultur tradizioak ziren zenbait elementu zeharkatu zuten itsasoa (jantziak, doinuak, dantzak...)"

Estetika indartsuari eutsiz, filmeko euskal dantzak ikusleek geografikoki inon ez koka zitzaizkeen nahi izan zutela aitortu du Jauregik: "Euskal Herriko folkloren berri ez daukan Azerbaijan edo Frantziako herritar soil batek, gustura ikus zezala, horixe izan zen gure asmoa, alegia. Eta eginkizun horrekin asmatu genuela uste dut".

Kolore bizien atalari dagokionez ere, uste okerrekin guregan indar handia eduki dutela dio Jauregik. "Iruditzen zaigu jantziak kolore guztiak beti izan direla gurekin, baita dantzarien gona gorria, edo Axeri Dantzako blusa! Gorri fuerte horiek, ordea, behinola Ameriketatik ekarritako koloratzaileak dira. Trikitia musika tresna, etxeko teila..., makina bat elementu dauzkagu gure bizitzan, guregureak direla uste izan arren, berez, kanpotik hartu ditugunak.

Azken batean, influentziak nahitik etorri zaizkigu historian zehar. Eta tradizioa beti joan da mugitzen eta aldatzen; hizkuntza bezala, beste hainbat kultur adierazpen".

Jantzien lagungarri gisa, argazki sorta ikusi ahal izango da Basteron. Xabier Artola da argazkien egilea: "Pribilegiatua sentitu nintzen errodatzea argazkiak atera ahal izategatik. Batzuetan sekuentziak behin eta berriro errepikatu behar izaten zituzten; dantzari eta teknikoentzat aspergarria gertatzen zen dinamika hori, igual bi egun behar izaten baitzituzten dantza saio bakoitza osatzeko. Nik, ordea, gozatu egiten nuen, jada ezaguna egiten baitzitzaidan zer sekuentzia zetorren segidan; dantza saioak ikuspuntu anitzetatik enfokatzeko aukera eduki nuen, era horretan. Gainera, argiteriari dagokionez, baldintza tekniko ezin egokiagoak eduki nituen lanerako, beti".

Andoaingo Ezpata Dantza eta Axeri Dantza

Erakusketa berean, Andoainen Santakrutzetan eta Sanjuanetan dantzatu ohi diren Ezpata Dantzako eta Axeri Dantzako jantzi bana ikusgai izango dira.

Gogoratu behar da 200 dantzarik hartu zutela parte Dantza filmean, eta horietatik batzuk Urki dantza taldekoak izan zirela, Maider Callejon, Ainhoa Mujika, Eñaut Egaña, Andoni Alonso, Leire Etcheberria eta Koldo Antolinez, hain zuzen. Bestalde, urtetan Urkiko irakaslea izan zen Jokin Otamendi filmean protagonismo berezia hartzen duen dantzarietako bat da. Azkenik, Iñaki Arregi dantzari ohiak aholkulari lanak egin zituen filmaren grabaketan, Urbeltzekin batera.



2021eko argitalpenen egutegiari jarraipena emanez, Aste Santuan ez da astekaririk argitaratuko.

Datorren Aiurri astekaria, paperean: APIRILAK 16, OSTIRALA

www.aiurri.eus